

Inguru naturala zaintzeko 'Agenda 21' plana martxan da Hernanin

■ Oreka bilatu nahi da naturak eman lezakeena eta bizi kalitatearen artean ■ Lehenbizi, herriko egoeraren diagnostikoa egin nahi dute, gero, erremedioak planteatzeko ■ Laguntzak Eusko Jaurlaritzak bideratzen dizkie udalei.



Santa Barbarako laku inguruan jende mordoak ibiltzen da paseatzen.

HERNANI *Agenda 21* planean sartuko den Europako herri bat gehiago da. Gure inguruko herri batzuk ere sartuta daude: Gasteiz, Donostia, Astigarraga, Oiartzun, Errenteri, Azkoiti-Azpeitia...

Funtsean, *Agenda 21* konpromiso bat da, gure gaurko beharrak asetzeari gain, gure ondorengoei bizitzeko moduko herria uzteko.

Horretarako, herriaren egoera ezagutu behar da eta konpromisoa hartu nahi dugun erabaki.

OHITURA ALDAKETA

Olatz ingurugiro teknikariak esan digunez, "mundu guztiko arazoa da ingurugiroarena. Hala ere, herri eta pertsona bakoitzaren ardura da arazoa konpontzen saiatzea. Herritar

bakoitzak bere ohiturak aldatzen ez baditu, alperrik da udaletik plan potoloak kaleratzea. Lehenbizi konturatu behar dugu, norberak egiten duenak, gure inguruari eta mundu guztiari lagunduko diola".

NATURA ZAINTZA BAINO GEHIAGO

Natura zaintzea baino gehiago izan nahi du plan honek: "bizi kalitatea hobetzea du helburu, baina, ingurugiroari egiten diogun kaltea gutxituta".

'Agenda 21', Europako herrien lanerako konpromisoa

INGURUNEA eta garapenari buruzko Rio de Janeiroko konferentzian (Brasil, 1992) atera zuten lehenbizikoz gai hau. Gero, Aalborgeko (Dinamarka, 1994) konferentzian, *naturarekin orekan bizi diren Europako herrien gutuna* onartu zuten. Gutun honek dio errekurso naturalak bukatu egingo direla, kontsumitzen dugun neurrian kontsumitzen jarraitu ezker; eta eskatzen dio firmatzen duen guztiari, konpromisoa hartzeko arazo honi aurre egiteko. *Agenda 21* plana, gutun honen jarraipena da. Gutunak arazoa planteatzen du eta *Agenda 21*ek lan egiteko metodoa.

DIAGNOSTIKOA, LEHENBIZIKO LANA

Arduradunek esan digutenez "herriaren egoeraren diagnostikoa egin behar dugu lehenbizi: ingurugiroaren egoera (soinua, aire kutsadura, argi eta uraren kontsumoa, eta gune berdeak), garraioa eta herritarren bizi kalitatea".

Dena dela, hau ez da udalak berak bakarrik egin nahi duen lana; herritarrekin batera egin nahi du.

JENDEAREN PARTE HARTZEA

Jendeari jakinarazi nahi diote, hemendik aurrera elkarrekin gauzatu beharreko plana dela.

Horretarako, gaika egingo dira eztabaidak: ingurugiroa, hirigintza eta herritarren egoera soziala. Hau, udaberri inguruan egin nahi dute. Honen arabera, diagnostiko bat egingo dute partehartzailiek. Uztaierako bukatzeko asmoa dute eta orduan erabakiko da Aalborgeko gutuna sinatu ala ez.

KANPAINA

Udalak berehalaxe hasi nahi du kanpaina egiten. Hori dela eta laister logo lehiaketa izango dugu.

Aurrerago, eztabaidak antolatzen direnean, jendeari iritsiaraziko diote beharrezko informazioa.

Beraz, udaleko arduradunak azpimarratu nahi izan dugu hemendik aurrera "behin eta berriz" ariko garela gai honen inguruan, eta jendear-entzat oso ezagunak egingo direla *Agenda 21, sostenibilitatea, jasangarritasuna, inguru naturala* eta antzeko hitzak. □

Inauterietako kartel lehiaketa



Iazko inauterietako kartela.

INAUTERIETAKO kartela lehiaketan erabakiko dute aurtien ere. Aurtengo kartelak lema beharko du: *Hernaniko Inauteriak 2002*. Tamaina 38 zentimetro zabal eta 44 zentimetro luze. Irabazleak 45.000 ptako saria jasoko du.

Lanak Biterin utzi behar dira hilaren 23a baino lehen, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara. □

'Haizea' eta 'Aurki'k erakusketa jarri dute Biterin

HAIZEA eta Aurki dendek erakusketa jarria daukate Biteri kultur etxean. Eskulanak dauzkate erakusketan: egur eta zeramikak, gantxiloa, bainiak eta abar. Hilaren 22 arte egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara. □

Kronika interneten da, eguneratua

LEHENGO asteko arazoak konponduta, eguneratua dugu Hernaniko Kronika interneten. Hemendik aurrera eguneroko alea interneten izango da berriz ere, www.hkronika.com helbidean. □



Skoda Fabia Datorren jendearentzat

MENABI
Txingurri pasealekua 26 - Herrera - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43



GALARRETA JAI-ALAI!
FRONTOIA

Galarreta gaina z/g - HERNANI

GAUR ARRATSALDEKO 16:00ETATIK AURRERA ERREMONTE JAIALDIA:

- ⊙ 1. partidua: MATXIN III - ETXEBERRIA II / ZEBERIO III - ASTIBIA
- ⊙ 2. partidua: EZKURRA - ETXEBERRIA II / ALTUNA II - EIZAGIRRE
- ⊙ 3. partidua: ZEBERIO II - AIZPURU / ALTUNA I - ETXABE
- ⊙ 4. partidua: URRETABIZKAIA I - AIZPURUA II / BITORIA - MENDIZABAL

3/4 PLATAFORMA

Xabier Arnaiz askatzea eskatzeko, mendi martxa eta bazkaria

■ Hernanitik Oindiko lepura, Aballarrira, eta Urmenditik barrena Olazarra egingo da martxa ■ Bazkaria Santa Barbara elkartearen ■ Datorren larunbatean, 08:30etan.



3/4 plataformako kideak kontzentrazioan.

XABIER Arnaiz preso hernaniarrak ia 20 urte daramazki espetxeratuta. Kondenaren hiru laurdenak beteak ditu, eta hiru laurden plataformak bere askatasuna eskatuko du datorren larunbatean, beste askotan bezala. Goizean mendi martxa egingo dute Oindi aldera eta handik Olazarra. Irteera: goizeko 08:30etan, Gudarien plazatik.

GERO BAZKARIA

Santa Barbara elkartearen bazkaria egingo dute eguerdiko ordubietan. Bertan bertsolari, trikitilari eta abar izango dira, festa jartzeko. Bazkari txartelak Txili, Oindi eta Riojanos tabernetan daude salgai. □

AEK EUSKALTEGIA

Pintxo txapelketa egingo dute bihar AEK-ko ikasleek

■ Hirugarren txapelketa da aurtengoa ■ Ikasleek aurkeztuko dituzte pintxoak, taldeka ■ Epai-le: Riojano tabernako M^a Jesus, Fagollaga jatetxeko Ixak eta Joni ikasle ohia.

HERNANIKO AEKk pintxo txapelketa berezia egiten du urtero, euskaltegian bertan. Ikasleak taldeka bildu eta gai bat aukeratzeko dute. Gai horren bueltan klasea dekoratu eta disfrazatzen dira, eta inportanteena, pintxoak egiten dituzte.

META ETA PLANETA, PINTXOTAN

Iaz espinaka kroketak irabazi zuen txapelketa. Unibertsoa gaiaren bueltan egin zuten eta planeta baten antza zuen, gusto goxoaz gain. Orain bi urte, berriz, Hernaniko AEK-ko maskota egin zuten ojaldez (*Xorta* belar meta).



AEKko ikasleak pintxo artean, iaz.

PUNTAKO EPAIMAHAI Aurtun punta-puntako epaimahaia izango dute pintxogileek. Ixak Salaberria Fagollagako sukaldaria, M^a Jesus Riojano-

tako sukaldaria eta Joni euskaltegiko ikasle izana. Festara inguratzen direnentzat ere egongo dira pintxo eta edariak. Bihar, ostirala, arratsalde-

ko 20:00etan prest egongo dira pintxo guztiak eta 21:00etan izango da sari banaketa. AEKko lokalean, Larramendi kalean. □

HITZ BITAN



Urdin denda saltzailea eta bezeroa, atzo, denda ireki berritan.

✓ DENDA BERRIA

‘Urdin’ denda berria ireki dute, Montebideo kalean. Bufanda, poltsa, opari, perfume eta antzekoak saltzen dituzte, Urdin denda berritan. Montebideo kalean dago, EPO eta Antziolako Atletismo pista artea. Lehengo asteartean ireki zuten.

✓ TXANTXANGORRI ELKARTEA

Barrikotea izango da bihar. Txantxangorriko urteroko barrikotea bihar da. Sagardoa Barkaiztegi eramango du, aurtengo txapelketa. Menua ere erabaki dute: bakailua saltsan, txuleta, gaztaina erreak eta sagardoa nahi adina. Hogeitamarraren bat lagun apuntatuak daude. Bihar 20:00etan.

✓ OLIO BILTZEA

Gaur da sukaldeko olio biltzeko eguna. Ferian egongo dira gaur ere sukaldeko olio erabilia biltzen, arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara, kiroldegiko frontoi ondoan. Bildutako olio birziklatu egingo dute gero. Urrian 139 pertsonak eman zuten olio, guztira 150 litro inguru; azaroan, berriz, 187 pertsonak, 255 litro.

✓ ERENOTZU

Gabonetan kantatzeko entsaioa bihar. Ereñotzun gabon kantak kantatzen ateratzen da koadrila. Lehen entsaioa bihar izango dute eta bigarrena datorren ostegunean (abenduak 20). Entsaioak ikastola zaharrean izango dira, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Aurten bi entsaio bakarrik izango direnez, antolatzaileek hutsik ez egitea eskatu dute. □

IRRATIAK

(E.M. 99.2) 12:00: Karabelgo auzo elkarteko Mirandarekin hitz egingo dute, igandeko krossari buruz 12:30: Hernaniko 2 arkeologorekin hitz egingo dute 21:00: Aфонia musika programa. Irungo *Apurtu* taldeari elkarriketa.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Bulnes Etxeberri ☎ 943 557738
▶ Gaez: Bulnes Etxeberri ☎ 943 557738

IRAGARKI MERKEAK

■ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Interesatuek deitu 943 33 09 27 -Mari Jose- (19:00-21:00).

GARAYAR AUTOBUSAK



AUTOBUS ZERBITZUA LINEA ERREGULARRAK

Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain-Urnieta-Hernani-Donosti-Hernani-
Urnieta-Andoain
ZERBITZU DISKREZIONALAK (ESKOLARRAK)

Jauregi bailara 17 - Tel: 943 556 658 - 943 556 662
Faxa 943 331 208 - e-maila: mgarayar@facilnet.es
20120 HERNANI (Gipuzkoa)



BADATOR OLENTZERO, BADATOR

